



EUSKAL UDALETAKO BERRIKUNTZARI BURUZKO DIAGNOSTIKOAREN AURKEZPENA

EUDEL, Asteazkena, 2012ko abenduaren 5a

- **EUDELeko Berrikuntzako ordezkari politikoak, Ermuko eta Elgoibarko Alkateek, Euskal Udaletako Berrikuntzari buruzko Diagnostikoaren emaitzei buruzko txostena aurketu dute gaur.**
- **EUDELek koordinatu du, Tokiko Gobernu bakoitzaren inplikazioarekin eta lankidetzarekin. Diagnostikoak Euskadiko udalen egoeraren “erradiografia” eskaintzen du, Euskadiko tokiko herri administrazioaren berrikuntzaren eta modernizazioaren esparruan.**
- **Analisia auto-ebaluazioko galdera-sorta batean oinarritzen da; hain zuzen ere, galdera-sorta horiek udal bakoitzarekin egin dira, 2012ko maiatzetik irailera bitartean.**

Diagnostikoa Tokiko Berrikuntza Agendaren esparruan egindako lana da. Tokiko Berrikuntza Agenda (TBA) EUDELek bultzatu du 2009az geroztik, Eusko Jaurlaritzarekin batera, Euskadiko hiru Foru Aldundiek, Innobasque, Euskalit Fundazioa eta KZGunea ere parte hartu dute.

Lortutako emaitzen arabera, eta Euskal Udalen aniztasuna ahaztu gabe, esan daiteke **Tokiko gure administrazioak aurrera egin duela alderdi askotan**, hala nola, hobekuntzarako bokazioan eta kudeaketaren dinamismoan, bai eta herritarrek ardatz harturik jarduteko borondatean ere.

Euskal Udalak 2. mailan sailkatuta daude, batez beste, 1etik 5erako eskala batean. Hala ere, alde handiak daude udal batzuetatik beste batzuetara, udalerrien biztanle kopuruari loturik, nagusiki. Izan ere, Euskal Udalerri handienak garapenaren hasierako faseetan daude, berrikuntzaren esparruan. Kudeaketarako teknika modernoak ezartzeari eta pertsonen kudeaketa aurreratuaren garapenari dagokienez, batik bat.

Diagnostiko honetan oinarriturik, datozen urteetarako lan-ildoak eta arloak finkatu eta sendotu ahal izango ditugu, eta TBAk sustatutako laguntza ekintzetan txertatuko dira arlo horiek. Berrikuntza sustatzeko ildoari helduta, eta gainerako erakunde eta eragile sustatzaileekin lankidetzan, zuen beharrian eta interes espezifikoek ahalik eta hobekien egokituriko erantzuna emateko lanean jarraituko dugu.

Diagnostikoaren bi helburu nagusiak

- Batetik, lortu nahi da udal bakoitzak berrikuntzarekin loturiko hainbat arlotan zer egoera duen jakin dezan, Euskadiko batez bestekoarekin, bere lurraldeko batez bestekoarekin eta bere neurriko udalen batez bestekoarekin erkatuta.
- Bide horretatik, ahalik eta ezagutza-oinarri sendoena izango dute Eudelek eta gainerako euskal erakundeek, eta, horrela, udalen beharrianetara egokituriko laguntza-tresna zehatzagoak eta errealistagoak garatu ahal izango dituzte, udalen premien arabera eta udalerri bakoitzaren garapen mailaren eta ezaugarrien arabera.

EGINDAKO LANA ETA UDAL PARTE-HARTZAILEAK

Gaur aurkezten ari garen diagnostikoak autoebaluazioko galdera-sorta bat du oinarri. Galdera-sorta udal guztietara bidali zen, eta haietako arduradunen partaidetzaren bidez osatu da. **10 ebaluazio irizpide ditu**, eta irizpide horietako bakoitzak alderdi zehatz batzuk aztertzen ditu, neurketa-adierazleen sorta baten bidez, udal bakoitza 1etik 5erako eskala batean kokatzeko moduan. Gero, xeheago aztertuko da diagnostikoaren edukia.

Orotara, 251 galdera-sorta igorri dira –euskal udal guztietara–, eta 203 erantzun jaso ditugu, alegia, %80,88k erantzun du.

Honako hauek dira udal parte-hartzaileei dagokienez nabarmentzeko ezaugarri nagusiak:

Erantzun indize handiena Arabako lurralde historikoak izan du, eta haren atzetik datoz Bizkaia eta Gipuzkoa.

Udalerrien neurriari begiratuta, bereziki nabarmentzekoa da **udalerri handien** partaidetza (50.000 biztanletik gorako udalerrien %100ek erantzun du), 25.000 eta 50.000 biztanle artekoena (%88,9k erantzun du) eta 1.000 biztanletik beherakoena (%88,1ek erantzun du).

Udal aurrekontuari begiratuta, erantzun kopuru handiena –82 udal, Udal guztien %40,4– 1,2 milioi eurotik beherako aurrekontua dutenena da.